BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4381

EBAZPENA, 2015eko irailaren 25ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Asociación Euskadi-Cuba erakundeak 2010eko lankidetza-proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Desarrollo integral en las comunidades de Realengo 18, Guantánamo. Fase II» proiektuari uko egiteko eskaera onartzen duena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko abenduaren 30eko Aginduaren bidez, diru-laguntzak eman zitzaizkien, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura, 2010. urteko proiektuei. Ebazpen horretan, Asociación Euskadi-Cuba erakundeari 433.478,00 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Desarrollo integral en las comunidades de Realengo 18, Guantánamo. Fase II» proiektua gauzatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2015eko ekainaren 30ean bidalitako komunikazioan, hirugarren ordainketari uko egiteko eskaera aurkeztu zuen erakunde horrek.

Eskaera aztertu ondoren, Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak erakunde onuradunak uko-egiteko eskaeraren aldeko txostena egin zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. zenbakiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Horrekin batera, baimen-eskaera bidali beharko dio proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik, eta aurrekontuan dituen ondorioak zehaztu.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean hasi ondoren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duen azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación Euskadi-Cuba erakundeari 2010eko lankidetza proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Desarrollo integral en las comunidades de Realengo 18, Guantánamo. Fase II» proiektuari uko egiteko eskaera onartzea.

Hirugarren ordainketa egiteko aginduek (86.695,60) euro indarra galdu dute.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jar dakioke Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 25a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.